

HUHEZIK Euskara Batzordea eta Euskara Plana aurkeztu ditu ikasle eta langileen aurrean

2007/04/24

HUHEZIK, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, erabaki du badela (hori galdetzen zuen Xamar idazleak atzo arratsaldeko hitzaldian, **Bagara ala ez?**), erabaki du euskalduna dela eta euskaldun izaten segitu nahi duela. Hori dela-eta, apirilaren 24an aurkeztu du **Euskara Batzordea**, eta aurreratu du **Euskara Planaren** zenbait xehetasun.

HUHEZI da MUren barruan fakultaterik euskaldunena. Emun kooperatibak egindako diagnostikoan agertzen denez, gure fakultatean euskararen ezagutza %100ekoa da, erabilera %82koa eta leialtasuna %83.

Euskara Batzordea

Hala ere, bada zer hobeturik, eta hutsuneok konpontze aldera fakultateak sortu du Euskara Batzordea, lau pertsonak osatua:

- Nekane Arratibel dekanoa, Zuzendaritzaren izenean.
- Karmele Perez, euskara arduraduna.
- Beñat Azurmendi, langileen ordezkaria.
- Beñat Zamalloa, ikasleen ordezkaria.

Helburuak

Euskara Batzordeak aintzat hartu ditu Emun kooperatibak egindako diagnostia, eta horren arabera erabaki du zer helburu izango dituen:

1. Langileak eta ikasleak inplikatzeari euskararen normalizazioan.
2. Langileon hizkuntza kalitatea hobetzea.
3. Hizkuntzaren kalitatea fakultatean bermatzea.
4. Euskararen erabilera areagotzea, batez ere ikasleen artean eta baliabide informatikoetan.
5. MUko euskara planen esparrua adostea eta garatzea.
6. Kanpo harremanetan eragitea, batez ere enpresetan.
7. Horretarako finantzabideak lortzea

Helburu horiek lortzeko, Euskara Batzordeak hainbat ekintza proposatu ditu eta departamenduei jakinarazi dizkie, azter ditzaten.

